

ELKARGO BERRIAK: ONGI ETORRI!

Bi Elkargo Profesional berri batu zaizkigu proiektura: [Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala](#), eta [Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua](#). ONGI ETORRI!

BILERAK, BATZARRAK... 8.PILULA

Bilerak, telebilerak, Batzar Nagusiak, elkarrizketa informalak... Lanean luzaroan egoten gara, eta hizkuntza bidez komunikatzen gara lankideon artean. Askotan, eremu formalean izaten da, baina baita informalean ere. Zein hizkuntza aukeratu eta noiz? Nola erabili euskara gehiago? Online eta aurrez aurre berdin arituko gara?

Pilula honetan **elkarrekin gaudenean zer gomendio jarraitu ahal dugun** eta elkartzek hizkuntza praktiketarako zer garrantzi duen landuko dugu.

NUEVOS COLEGIOS: ONGI ETORRI!

Se han unido dos nuevos Colegios Profesionales al proyecto: [El Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos técnicos de Álava](#) y el [Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa](#). ONGI ETORRI!

REUNIONES, ASAMBLEAS... 8ª PÍLDORA

Reuniones presenciales y online, Asambleas Generales, conversaciones informales... Pasamos mucho tiempo trabajando, y conseguimos comunicarnos mediante el idioma. En el trabajo sobre todo hablamos en el ámbito formal, pero también en el informal. ¿Qué idioma elegir y cuándo? ¿Cómo utilizar más el euskera? ¿Actuamos de la misma manera online y cara a cara? En esta píldora trataremos sobre las recomendaciones que podemos seguir al estar juntos, y la importancia que tienen dichos encuentros para la práctica lingüística.

8. PILULA: Batzartzen garenean – Cuando nos reunimos: PÍLDORA nº 8

[Ea zenbat asmatzen duzun!](#) – [¡A ver cuántas aciertas!](#)

BISITAREN KRONIKA ETA

ZOZKETAREN IRABAZLEAK

Abenduaren 22an lau elkargokidek otarrak irabazi dituzte, Euskararen egunerako eta urte amaierarako antolatu genuen Elkargo Ekinen baitan. Bikoteak Bizkaiko Abokatuen Elkargokoak eta Ekonomisten Euskal Elkargokoak dira: **Iñaki Aresti Uribe, Maite Aresti Bilbao, Amaia Bilbao Campos eta Elena Campos Arrizabalaga**. ZORIONAK!!! Azpian erantzun zuzen guztiak.

Bisita gidatuaren kronika ere igo genuen Euskararen Txokora eta sare sozialetara, [eman begiratu bat!](#)

CRÓNICA DE LA VISITA Y

GANADORES-AS DEL SORTEO

El 22 de diciembre cuatro colegiados-as han ganado las cestas que sorteabamos, en el marco del *Elkargo Ekin* que organizamos para el Día del Euskera y para fin de año. Las parejas participantes pertenecen al Colegio de Abogados de Bizkaia y al Colegio Vasco de Economistas: **Iñaki Aresti Uribe, Maite Aresti Bilbao, Amaia Bilbao Campos y Elena Campos Arrizabalaga**. ZORIONAK!!! Debajo las respuestas correctas.

¡Echa un vistazo también a la [crónica](#) de la visita guiada realizada a principios de mes!



WEBGUNEAK AUTOMATIKOKI EUSKARAZ

Zure webgunearen domeinua .EUS bada, Elhuyarren Elia itzultzaile automatikoa erabiltzaile webgunea euskaratu dezakezu. Gogoratu beti profesional batek berrikusi behar duela. Informazio gehiago, [hemen](#).

TRADUCCIÓN AUTOMÁTICA DE WEBS

Si tu página web utiliza el dominio .EUS, puedes traducirla al euskera utilizando el traductor automático Elia de Elhuyar. Recuerda que siempre debe ser revisada por profesionales. Más información, [aquí](#).

Euskararen Berpizkundeak: 1880-1935 eta 1960-1980

Zozketaren erantzun zuzenak / *Respuestas correctas del concurso*

XIX. mende amaieran euskara bultzatzeko ekimen batzuk abian jarri ziren. Zeintzuk?

1886an Resurreccion Maria Azkuek lehenengo "ikastetxea" sortu zuen Zazpikaleetako Jardines kalean, hitz hori horretarako berariaz sortuz.

1888an Euskeraren Katedra sortu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Institutu Zentralean euskarazko goi mailako ikasketak eskaintzeko.

Erantzun biak ondo daude

Eta ikastolen sarea noiz zabaldu zen?

Ikastolak Francoren garaian sortu ziren lehenengo aldiz, 1960ko hamarkadan.

1906tik 1933 bitartean hainbat "ikastola" zabaldu ziren Bilbon (Plaza Barrian 1906 lehenengoa), Donostian (Koruko Ama 1914), Bizkaiko auzo eskolak (1918tik), Iruñian (Euskararen Adiskideen Elkargoa 1933).

Ikastolak Franco hil eta gero (1975) zabaldu ziren Euskal Herritik.

Noiz eta nork jarri zituen abian bertsolarien txapelketak gerra ostean?

AEK-k 1990ko hamarkadan

Alfonso Irigoienek Euskaltzaindiaren babesaz hasieran 1958an

Ikastolek 1980ko hamarkadan

Euskaltegiak tresna garrantzitsuak izan dira euskara berreskuratzeko baina zer dakigu haiei buruz?

100.000 euskaldun hitzun berri sortu dituzte azken 40 urte hauetan

Hasieran gaueskolak izan ziren, 1965etik hasita, eta irakasleak boluntarioak ziren. Gero profesionalizatu ziren eta gaur egun sare zabal bat osatzen dute.

Aurreko galdera biak zuzenak dira.

Euskarazko liburuak

Euskaraz liburu gutxi argitaratu dira oro har, frankismo osoan ez zegoen aukerarik argitaratzeko eta zabaltzeko.

Durango Azoka tresna garrantzitsua izan zen gerraostean euskaraz argitaratzen ziren liburuak zabaltzeko. Lehenengo azoka Elizaren arkupetan egin zen 1965ean.

Durango Azoka garrantzitsua da eta 1975ean zabaldu zen lehenengo aldiz.

Lehenengo euskarazko egunkaria zein izan da?

"Egunkaria" izenekoak izan zen, 1990ean sortutakoa

"Berria" izenekoak, 2003an sortutakoa

"Eguna" izenekoak, 1937an sortutakoa

Esan zeintzuk diren euskaraz argitaratu diren aldizkari zaharrenak hauen artean:

Elhuyar, Aizu, Argia

Eskualduna, Euskalzale, Ibaizabal, Zeruko Argia

Aikor, Prest, Barren, Goienkaria

Euskaltzaindiari buruz zer dakigu?

Aldundien laguntzarekin sortu zen 1918. urtean, Eusko Ikaskuntzako bilkura batean proposatu ondoren. Lehenengo burua Azkue izan zen eta ekimen asko jarri zituen abian: hiztegia, gramatika... Lurralde eta euskalki guztietako ordezkariak parte hartu zuten.

Azkuek eredu baturako proposamena ere egin zuen, gipuzkera osatua, baina gerragatik ezin izan zen zabaldu.

Aurreko erantzun biak zuzenak dira.

Zein da Euskal Herrian euskaltzale gehien mugitzen duen ekimena?

Bizkaiko Ibilaldia, 1978an sortutakoa

AEK-k bi urterik behin antolatzen duen Korrika, 1980an sortutakoa

Bertsolarien Txapelketa Nagusia, BECen ospatzen dena

Noiz sartu zen euskara idatzia enpresetan eta merkataritza arloan?

Orain dela denbora gutxi, euskara ofizial izendatu zutenean 1980ko hamarkadan

XIX. mende hasieran, publizitatea eta beste komunikazio batzuk euskaraz egiten zirelako. Ezagutzen den aipamen zaharrena Donostiako Credit Lyonnais banketxeak "Mintzatzen da euskaraz" errotulua, 1905ekoa.

Lehenengo publizitatea euskaraz 1940an egin zen Iruñian.